


- Antonio Murillo doktorea
PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA
- Ainhoa Zulueta doktorea
ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA
- Susana Sierra doktorea
ORTODONTZIA, OKLUSIOA



**Edozein tratamendu
dela ere, eskaintzen
dizkizugun abantailekin**


**BELDURRA
DENTISTARI?**

ZER DA HORI?



Sedaziazarekin

gustoa



ematen du!

ORDUTEGIA:
Astelehenetik
ostegunera:
10-14 / 16-20h / Os-
tiraletan:
10-14 / 15-19h

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52



IRAZABAL
clínica dental

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

RPS 04/02



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maidier Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidier Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Felix Morquecho

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*)k ez du bere gain hartzen al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

IÑONA/IÑORENA.- Besteena. Erderazko 'ajeno'. "Iñona, norberana beziñ ondo edo hobeto gorde bihar da".

IÑON/IÑOREN LOTSA.- Besteek egiten dutenak lotsatzen gaituenean sentitzen duguna. 'Vergüenza ajena'. "Kantatzen hain zan txarra, ekiten zetsanien danak iñon lotsia sentitzen eben".

IÑON BEGIXAN LASTUA IKUSI ETA HABIA EZ NORBERANIAN / IÑON BIZKARREKO LASTUA IKUSI ETA NORBERANIK EZ / IÑONIAN LASTUA BAI IKUSI, BAIÑA EZ HABIA NORBERANIAN.- Errefrau ezagunaren hiru aldaera.

ESKUTITZAK

— OHARRA —

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarrik onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erre-dakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailaz: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Aspaldiko susmoari izena jarri diote ikerketek: zaharkitze programatua. Orain dela hamarkada batzuetako gailuak azken urteetakoak baino sendoagoak ziren eta, akatsen bat izanez gero, errazago konpontzen ziren. Gaurko produktu guztiak bi urteko bermea dute. Kasualitatea da gero: gailu asko bi urte eta erdirekin edota hirurekin hondatzen dira. Zaharkitze programatua? Seguruenik, baina hori frogatzea ia ezinezkoa zaio kontsumitzaileari"


(Jose Luis Segura, EH-ko Kontsumitzaileen Antolakundeko prentsa arduraduna)

"Islandia hazten ari da, %3 azken urtean. Krisi ekonomikoaren zulo beltza ezagutu zuen: bankuek milioika koroa atera zituzten herrialdeetik eta jendea haserre egin zen. 300.000 biztanle ditu Islandiak eta gure inguruko herrialdeek erabili ez duten beste erre-zeta bati jarraitu diote: bankuei zorra ordaintzera uko egin zioten eta kartzelan sartu kudeaketa iruzurtia egin zuten bankariak. Une honetan langabezia tasa %7koa da: hartuko lukete europar gehienek"

(Maddalen Iriarte, kazetaria)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

autuan

MATSARIRAKO PASARELA

Tren geltokixa barrizten diharduela aprobetxauta, trenbide gaineko pasarelia kendu eta barrixa jasotzia erabagi dabe eta hori egitteko biharrek hillebete pare bateko iraupena eukitzia aurreikusten dabe. Gabaz jardungo dabe, trenen jua- etorriak ahalik eta gitxien oztopatzeko eta oiñezkueri be eragingo detse: Jardinetara jua nahi daben oiñezkuak Pagaegi kaletik jua biharko dira.

GREBARI BURUZKO HITZALDIXA

ELAKo kide eta lagunendako hitzaldi informatibuak antolatua dittue eguaztenerako: 10.00etan ELAKo egoitzan emongo dabe eta 18.00etan, barriz, Armerixa Eskolan.

ARMERIXAKUAK ATZERA ALKARREKIN

Hillaren 24an Armerixa Eskolakuak jardunaldi berezixarekin ospatuko dabe ikasle-ohien urteko batzarra. Ikasle izandakuak ez eze, irakasliak eta irakaskuntzatik kanpora eskolan biharrian jardundakuak atzera be alkartzeko aitzakixa izan nahi daben bazkarira jua nahi dabenak bixar arte eukiko dau izena emoteko aukeria, 943203146 telefonuan edo aaa@armeriaeskola.com helbidian.

EUSKARAZ BIZI EGUNA

Euskal Herrian Euskaraz-ek antolatuta, bixar Euskaraz Bizi Eguna ospatuko da Donostian eta Eibartik bertara juateko autobusa 10.15etan urtengo da Ego Gaiñetik eta bueltia kontzertuak amaitzian izango da.

Agiñagako basarritarra hilda topau dabe

EGUAZTEN GOIZIAN SUHIL-TZAILLIAK 59 URTEKO GIZON BATEN GORPUA TOPAU ETA ERRESKATAU eban Ixua inguruan. Felipe Ugarte-buru Agiñagako Arno basarri- kua zan eta domekaz geroztik desagertuta eguan. Astelehe- nian famelixakuak horren barri Ertzaintzari emon zetsenetik billa jardun arren, eguazten goizera arte ez eban topau. Izan be, gizonak gidatutako au- tomobilla errepidetik urten eta



Domekaz geroztik desagertuta eguan Ermuko biztanlia aurkittu eban haraiegun.

amildu zala pentsatzen dabe erreskatian parte hartu ebe- nek, baiña ezkutuan dagan tokixan amiltzian iñork ez eban ezer ikusi, piñu batzuek ada- rrak urratuta zittuela ikusi eta,

arrastuari jarraituta, automobi- lla eta gorpua eguazten tokira aillegau arte. Istripuaren barri emon leikian jende billa dihar- due ertzaiñak, pasau zana ar- gittu nahixan.

Gurasoak Martxan ekimena

GIZARTEKINTZAK GURASOAK MARTXAN EKIMENA ABIARAZI DAU ATZERA BE, IV. DROGOMENPEKOTASUNAREN PREBENTZI- ÑO PLANAREN barruan. Guztira 11 hitzaldi es-

kinduko dittue herriko ikastetxietan, eta gurasue- ri seme-alabak izan leikiezen arazuari aurre egi- tteko lagungarrixa izan leikian informaziñua emotia da helburua. Drogomenpekotasunak jo- rratziarekin batera, generuare- kin edo kulturen arteko erres- petuarekin moduko gaixekin loturia dakenak landuko dittue Baikara Gipuzkuako Ikaslien Gurasuen Federaziñokuak emongo dittuen hitzaldixetan. Martitzenian ekin zetsen hitzal- dixerri, San Andres ikastetxian eskindutakuarekin eta hurren- gua datorren astian emongo dabe, eguenian 18.30xetan Urkizuko eskolan ("Autoritatea familiar").



Ana Rodríguez ziñegotzixa eta Jaione Azkue teknikarixa prentsaurreku. / EKHI BELAR

...eta kitto!-ren batzarra hillaren 22xan

DATORREN ASTEKO EGUE- NIAN, HILLAREN 22XAN EGINGO DAU EZ-OHIKO BA- TZARRA ...eta kitto! Euskara Elkarteak bere egoitzan (Urki- zu, 11 solairuartian). Batza- rrian legiak eskatzen dittuenak betetzeko alkartiaren estatu- tuetan egin biharreko moldake- tia presentauko dabe. Batzarra 19.00xetan hasiko da lehelen- go deialdixan eta, bazkidien er- dix ordurako ez bada ager- tzen, 19.30xetan bigarren deialdixan hasiko da. Jarrai- xan, Urteko Batzar Nagusixa

egingo da, honako gai-zerren- diari jarraituta: 2011ko gesti- ño-balanzia, 2012rako egitas- mo eta aurrekontuak, galdera-

erantzunak eta iradokizunak, zuzendaritza barrixaren hauta- ketia eta funtzionamendua eta psikolabisa.



Zuzendaritza barrixak lehelengo urtia bete dau. / SILBIA HERNANDEZ

II. Landare Ferixia bixar Urkizuko parkian

AZOKIA UDALAK ETA DEBEMEN DEBARRENEKO LANDA NEKAZARITZA ELKARTEAK ANTOLATU DABE, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren laguntasunarekin. Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako trikitilarixak girotuko daben ferixia 09.30xetan hasi eta 14.00xak aldi amaittuko da. Lore eta landarien erakusketa eta salmentarako karpak ipiñiko ditue parkian (itturrixaren aldi) eta bertan egongo dira eskintza anitzarekin parte-hartuko dabenen postuak: Blas Enea Mintegiak (Zarautz), landare ekologikuekin; Islaya (Erretereria), gizenak eta bizikorrekin; Aranburu Mintegiak (Agiñaga-Usurbil), zuhaixka eta sasoiko landariekin; Irun Bonsai (Irun), bonsaiekin; Zunoiar (Oiarzun), sasoiko landare eta bildumekin; Urtinea (Usurbil), sasoiko landariekin; El Montañés (Tafalla), landare usaintsuekin;



laz egin zen lehelengo bidar Landare Ferixia, jende askoren parte-hartziarekin. / MAIALEN BELAUSTEGI

Flores Blanca (Eibar); eta Antonena Basarrixa (Oñati).

Umiendako tallarra


Bestalde, azokaren inguruan "Natura Lantzen" umiendako tallarra be antolatu

dabe, 11.30xetatik 13.30xetara eta goiz osuan, Errebal eta Arraguetako dendari eta tabernarixen eskutik, animaziño-jarduerak egongo dira martxan Errebalgo aparkalekuan: gaztelu puzgarrixa eta musikia egongo dira, bestiak beste.

Bilduk Bolo-Bolo aldizkarixa presentau dau

"BOLO-BOLO EIBARKO BARRIXAK HURBILDUZ" ALDIZKARIXAREN 1. ZENBAKIXA PRESENTAU EBEN Bilduko ordezkariak martitzenian. Bilduren komunikaziño-lantaldiaren eskutik jaixotako aldizkarixa 12 orrialdekua da eta bertan gure herrixarekin lotutako hainbat konturen gaiñeko informaziñua jaso dabe, herrittarren artian ezagutzera emote-


ko asmoz. Azala, barruan landutako gai nagusixetako bateri, ospittal barrixaren proiektuari eskindu detse eta, horrez gaiñ, udal aurrekontuez, Euskararen Egunaren azken ediziñuaz, azokako basarritarrez eta beste hainbat kontuez dihardue. Euren berbetan, "informaziñua emotiaz gaiñ, herrittareri parte-hartzeko aukeria eskindu nahi detsagu eta, horren harira, Behatxulotik izenburuko atala sortu dogu, nahi dabenak bertan bere idatzi edo argazkixekin kolaboratzeko aukeria izateko". Idatzi nahi dabena testua e-maillez bildu@eibar.net helbidera bidaltzeko aukeria daka edo, nahixago badau, udaletxian Bilduk dakan buzoian laga leike.



eibar.net webgunian dago esleipendunen zerrendia. / Miriam Rodriguez

Iparragirreko etxien zozketia

IPARRAGIRRE KALIAN EGINGO DIRAN PROTEKZIÑO OFIZIALEKO 42 ETXIEN ZOZKETIA aurreko barixakuan egiñ eben, Coliseo antzokixan. Legiari jarraituta, esleipendunen zerrendia argittara emon dabe eta nahi dabena Pegoran edo Udalaren webgunian (www.eibar.net) konsultatzeko moduan topaiko dau.



IGNACIO ALDZABAL AZKARRAGA^{ren}
(Martxoaren 4an hil zen, 93 urterekin)

*"Zu joan zara, baina, zureganako gure maitasuna ez.
Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza"*

EMAZTEA: DOLORES. **SEME-ALABAK:** KONTXI ETA JOSE ANTONIO, JOSE IGNACIO (†).
BILOBAK: IKER ETA MARTA, XABI ETA MARTA.

asteko

46.535

datua

lan-ordu bete zittuen 2011n udal brigadako bihargiñak, horretatik %26 kale-konponketak egitten; lan-orduen ixia %24 lorategixetan emoten dabe eta %11 herrixan antolatzen diran jai eta horrelakuekin lotutakuetan.



Imanol Larrañaga eta Felix Errasti atzo emondako prentsaurrekuan. / EKHI BELAR

Maixak prestatuko inkestia herritarren artian

MAIXAK (EIBARKO HERRITARREN PARTEHARTZE MAHAIXAK) INKESTIA PRESTATUKO DAU herritarrek erantzuteko. Parte-hartzeko aukeria emotia da asmua eta www.maixa.org webgunian egongo da erantzuteko aukeria apirillean zihar. 10 zatitan banatuko da eta 50 galdera inguru eukiko dittu.

Udalak Errebalen zentro komertziala eraikitzeke baldintza-agirixa epe motzian aterako dabela aipatzen dau Maixak eta, zentzu horretan, "herritarren parte-hartze prozesu baten biharren gagozela diogu".

Udal webgune barrixaren gañian, bestetik, analisisa egin dau Maixak. Ondorixuen artian, herritarren parte-hartzerako saillak falta dirala eta herritarrekin harremanetarako webguniak dittuan hutsuniak azpimarratzen dittu. Konturatu dira, baita, "webguniak transparentzia bihar handixaguak dittuala".

...eta kitto!-k bat egin dau hedabidien agirixarekin

HERRI EKIMENEZ SORTUTAKO EUSKARAZKO HEDABIDIAK AGERRALDIXA EGIÑ EBEN martitzenian Andoainen, sektoriaren diagnosixa eta erronka komunak identifikatzen dittuan dokumentua siñiatu eta presentatzeko. Bestiak beste, euskal hedabidiak daken funziño soziala zein pisu ekonomikua gogoratu zittuen: "Euskarazko hedabidien biharra 450.000 lagunengana aillegatzen da eta horretarako 600 bihargiñetik gora dihardue 100dik gora hedabidetan. Alkarrekin 27 millioi euroko pre-supuestua darabilgu eta 7 millioi eurotik gorako ekarpena egitten detsagu diru publikuari, gizarte segurantza eta zergen bidez".

...eta kitto! aldizkarixak, beste komunikabide askok eginda-




Martitzenian aurkeztutakua lehelengo urratsa da eta lanian jarraituko dau taldiak.

kuaren bidetik, bat egin dau aurrrera begirako erronka nagusixak proposatzen dittuan agirixarekin. Siñiatutako idatzixak jasotzen dittuanak laburbiduta, bestiak beste, hedabidiak egin biharreko inbersiño haundixak azpimarratzen dittue lehenik eta behiñ. Horrekin batera, "atzian ez geratzeko eta bezerueri merezi daben zerbitzua eta produktuak eskintzeko, ekoizten dittugun produktuen kalidadia eta kudeaketia be hobetu bihar dittugu. Bestalde, etenbariko barrikuntzaren sa-

soian, ikerketia eta hausnarkeitia ezin doguz ahaztu eta, horren harira, hedabidien behatoki baten premiña argixa ikusten dogu". Agirixak hedabidien arteko alkarlana zeñ instituziñuekin batera egin biharrekoa azpimarratzen dittu eta erakundieri zuzendutako eskaeriarekin amaitzen da: "Deialdixen sistematik hitzarmen eredueta jua ezinbestekua ikusten dogu. Biharrezkua da erakundiak laguntza-politikia egokitzia eta sektoriaren inbersiñuak eta garapena sustatzia".

Ospital-lurraren deskontaminaziñuarekin rifi-rafea


OTAOLA HIRIBIDIAN JASOKO DABEN OSPITALAREN LURRAREN DESKONTAMINAZIÑUA NORK PA-GAUKO DABEN atzera be aurrez aurre ipiñi dittu Udaleko gobernu taldia eta oposiziñua. Aurreko asteko eguenian Bilduk eta Aralarrek siñiatutako idatzixan, lurra deskontaminatzeko biharrek Osakidetzak pagau biharrian "eibartarrok" ordaindu biharko genduazela emon eben aditzera, "alkatia gezurretan dabilleta" gaiñeratuta. Horren barri euki eta bariakuan Miguel de los Toyos-ek prentsaurrekuan argittu nahi izan zittuan autuaren gaiñekuak: "Idatzixan esaten dabenaren jatorrixa otsaillian Osasun Sailburuak eta Arreta Sanitariorako zuzendarixak Legebiltzarrian esandakueta dago eta, Bilduk eta Aralarrek diñuena ikusitta, Bengoa eta Garate jaunak esandakuak modu okerrian interpretau dittuela



edo, bestela, udal gobernuaren biharra ahultzeko ahalegiñetan dabilzala uste dot. Honen gaiñeko hitzarmenak jasotakuari jarraituta, lehelengo eta behin lur motaren kalifikaziñuan aldaketa egin biharko dogu, industrialetik osasun arlokua izatera pasatzeko eta horretan dihardue biharrian Udalian bertan. Hortaz, ez dau gasurik eragingo. Eta horren ostian, lurraren kalidadiaren gaiñeko azterketia egin biharko dau enpresaren bateg". Azken horren gastua da Udalak bere gaiñ hartuko dabena.

Euskeraren presentzia ospittal eta ambulatarioetan bultzatzeko asmuarekin, Osakidetza pegatiña batekin identifikatuko ditte euskeraz komunikatu nahi daberen profesional eta paziente euskaldunak. 'Euskaraz bai sano!' da egitasmuaren lelua.

Zelan ikusten dozu euskerazko arretarako pegatiñak ipintzia?



SARA FERNÁNDEZ
73 urte
jubilaua

Nik ez dakit euskeraz egiten, eta batzutan euskeraz egiten detsue eta ez dozu ulertzen. Neurri hau ondo dago egoera horrek sahiesteko. Pegatiña dakala ikusten badozu, euskeraz egiten detsazu, euskeraz badakixala dakizulako. Ondo dago neurrixa.




JAVI GARCÍA
61 urte
jubilaua

Ondo begittantzen jata neurrixa, holan zuzenian jua ahal zaralako euskeraz dakixan medikua-rengana. Gaiñera, nere moduan euskeraz asko egiten ez daberen jentia be animau ahal da euskeraz egittera. Bestetik, Euskal Herrixa gagoz eta euskeriaren erabilleria sustatu egin bihar da.

GORETTI GOIOGANA
22 urte
ume-zaintzaillia

Nik lehelengo berbia beti egiten dot euskeraz, bestia euskalduna izan ala ez, baiña gazteleraz erantzuten badesta, gazteleraz egingo detsat. Neurri hau ondo daguala begittantzen jata. Holan, jentia euskeraz egittera animauko da, izan be, lelengo gazteleraz egitteko ohituria dago.



PEDRO ARISTONDO
74 urte
jubilaua

Ondo ikusten dot neurri hau. Nere medikua euskalduna da eta neuk be hor ez dakat arazorik. Halanda be, pegatiña barik be, begittantzen jata igartzen dala zeñiek dakixan euskeraz eta zeñiek ez. Urtekin jasotako esperientziarekin jasotzen dan zeozer dala pentsatzen dot.



EGOITZA NAGUSIA
Bilaberrrieta 20 - beheko, eskuma

MUGICA FUNERARIA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Erusketako labora

Egokibon (lugar pignonon)

Partikular, eratu eta desagun erren zerbizak

Koizki - Eskala - Urtearenko eskala

Euskal Herri osoko ospitaleen tartan 24 ordu

Nezari eta Nezarietako tratamenduak

Mugica Ehorzketa

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

OTEGUI HARATEGIA

Etxeko plater kozinatu eta aurrekozinatuak


Mobila. 652 77 25 42
Telefona. 943 82 05 24
Urkizu, 28



Orain zaldikia (moxala)



ere badugu





Euskeria: Ume eta Gurasuen arteko Loturia

Iazko ikasturtian jarri eban martxan ...eta kitto! Euskara Elkartiak Gurasoak Berbetan egitasua. Ordutik gaur egunera arte, hainbat talde osatu dira gurasuek euskeria praktikatu eta euren seme-alabekin daken harremanian euskeriaren presentzia sendotzeko.

Ama, aitta, parkera juatia nahi dot”, “harrapaketetan jolastuko dogu, June?”, “dan-dana jan bihar dozu mutil haundixa egituko”, “Pintxo. Pintxo’ abestuko dogu?”... Egunerokotasunian guraso eta seme-alaben artian entzuten diran barriketak dira, euskeraz, eta hori holan izateko ipiñi zan martxan Gurasoak Berbetan egitasua.

Euskeraren famelixa bidezko transmisioan eragittia, famelixan euskeriaren erabileria areagotzia, gurasuen gaittasuna hobetuta; seme-alabentzat eredu izatia eta euskerarekiko jarrera positibua erakustia; ohiturak sortzeko tresna izatia; eta euskal harreman saria sendotzia dira Gurasoak Berbetanen helburuak. Horretarako, euskaldun eta euskaldun berriz osatutako taldiak sortu dira, astian behin ordubetez geltitzen diranak (kafia hartzeko, parkian, poteuan...) eta ekintza osagarrietan parte-

hartzeko dabenak (txanguak, ikuskizunak, taillarrak...), nahi izanez gero. Ekimenian Haur Hezkuntzako (2-5urte) ikaslien gurasuak hartzen dabe parte, bai euren euskerara mailla hobetu nahi dabenak, bai euren aportaziñua eskindu nahi dabenak.

“Premiñia ikusi neban”

Azken talde horretan dago Eukene Lamariano. Bera, ekimenian parte-hartzeko



daben bestien moduan, astian ordubetez batzen da beran kideekin. “Guraso eta euren seme-alaben artian euskeraren erabileria sustatzeko premiñia zeguala ikusi neban”, aipatzen dau Eukenek. “Inguruan euskeraz egitten dakixan jendia ikusi dot, praktikia galdu dabena, eta horregaittik euren seme-alaberi gazteleraz egitten detseña. Horrek kezkatu egin zestan”, eta ekimenian parte-hartzia erabaki eban.

Iazko ikasturtian ikastetxe bik hartu eban parte egitasman (froga pilotua zan). Guztira 18 bat gurasok emon eban izena eta 4 talde osatu ziran. Aurten, nahiz eta ikastetxe danetara zabaldu dan parte-hartzeko aukeria, ez da izen-emate ‘uholderik’ emon. 4 talde egoten jarraitzen dabe, 5 lagun berrik emon dabelako izena. Halanda be, taldiak senduak dira eta txintxo batzen dira astero.

Euskaldun falta

Eukene Lamarianoren berbetan, “ekimena martxa onian doa. Iazko kurtsuan zihar jende barrixa batu jakun”. Sortzen diran talde batzuk naturalak izaten dira, adibidez



**SEGUNDO
AUTOAK**

ZABALDU BERRIA

Konponketak prezio onean
Animatu eta galdetu inongo konpromisorik gabe

Armagin kalea, 8 - AC

tel/fax: 943 53 08 70 segundoautoak@gmail.com

ESTI GONZALEZ: "Errazagua da ezaguerak melodixen bidez barneratzia"

- Zelakua izango da martxoaren 23ko saiua?


Kantu eta jolas sorta bat landuko dogu, guraso eta umien artian jostatzeko, elkarrekin egitteko. Hainbat aukera dakan menua eskintzia pentsatu dot. Izan be, ume edo gurasuek kantu edo jolas batekiko 'feeling' handixagua eukitzen dabe; eta asmua da euren eskuetan hainbat proposamen jartzia, gero eurek aukera egitteko.

- Ariketak egingo dittuzue?

Kantu edota jolasak barre edo gozamenarekin lotzen badittuzu, afektibotasun gehixago lortzen dozu horrekiko. Ariketak baiño, momentuan kantatu eta jolastia da gehixago.

- Musikaren bittartez errazagoa da euskararen transmisioa egittia?

Euskera, edozein hizkuntza edota edo-



zein ezaguera transmitzia da errazagua musikiarekin. Umiei aillegatzeko, ez dakigu zeintzuk diran euren buruko bidiak. Errazagua da ezaguerak melodixen bidez barneratzia, letra hutsarekin baiño. Beraz, bai, lagungarria da.

parkian batzen diran lagunak, ekimen honetan parte-hartzia erabakitzen dabenak eta modu naturalian euskeraren erabilleria lantzen dabenak.

Zentzu horretan, Gurasoak Berbetanek ondorior, bere umearen gelako beste ume baten amarekin oiñ euskeraz egitten dabela aipatzen dau Eukenek. *"Bestela gaztele-raz egitten genduan. Gaiñera, gu alkarrekin gagozenian umiak inguruan dagoz, eta hola ikusi ahal dabe euskeria ez dala eskolako zeozer, baizik eta eguneroko bizitzan erabiltzen dan hizkuntzia dala baiño"*.

Gurasoak Berbetaneko arduradunak jasotako erantzunarekin pozik badagoz be, euskaldun falta nabarmentzia nahi dabe.



Abenduan antolatatu zan Gurasoak Berbetan Eguna.

"Arazo orokorra da, Berbetan egitasman be traba berarekin egin dogulako topo". Izan be, euskaldun barrixa 'zerbaiten' billa doia ekimenian parte-hartzera, "baiña euskalduna zeozer eskintzera etorri bihar da, eta bere denporiari tartia kendu bihar detsa beste batzueri laguntzeko".

Kantu- eta jolas-taillarra

Astian behin alkartziaz gain, bestelako ekintzak be antolatzen dittu Gurasoak Berbetanek; gurasuak euren seme-alabekin egitteko moduko ekintzak. laz, adibidez, Eriz Maguaren ikuskizuna eskindu jakuen eta ikasturte amaieran egun-pasa jua ziran Arratera. Han, alkarrekin bazkaltziaz gain, guraso eta umiek alkarrekin jolasteko aukeria euki eben.

Aurtenguan paillazuen ikuskizuna eskindu da eta martxuaren 23an euskal kantu eta jolas-taillarra emongo dau Esti Gonzalezek. Ordu biko iraupena eukiko dau eta 17.30etan emongo jako hasieria.

Horrez gaiñ, hillero tribial txapelketia antolatzen da talde guztixen artian (Berbetanekuekin batera) eta ekaifian puntu gehixen dakan taldiari erregalua emoten jako. Gaiñera, Gurasoak Berbetan Eguna be antolatu zan urte amaierian. Holan, Untzagan jarritako karpan egun osoko egitaraua egon zan: Eibarren euskeraz aisialdiaren inguruan daguan eskintzarekin erakusketia, taillarrak, ipuin-kontalarixa, DJxa, eta abar. Euskerarein dantzan egiñ eben han bildu ziranek.

Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ **943 12 02 00** ☎ **943 12 02 04**

1 Kardiologia	10 Barne Medikuntza
2 Zirugia	11 Radiologia
3 Dermatologia	12 Urologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	13 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	14 Koloproktologia
6 Ortodontzia	15 Erizaintza
7 Otorrinolaringologia	16 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8 Pediatria	17 Foto-depilazio Unitatea
9 Psikiatria	

www.irazabal.net

Azitaín Industrialdea, 3 - H 943 120108

IGELTSERITZA LANAK ETA GREMIOEN KOORDINAKETA

KALITATEZKO OBRAK

Sukaldeak, komunak edo etxe osoak

Teilatuak, impermeabilizazioak, pabilioiak, bulegoak, dendak...

%5

eko
DESKONTUA

SUKALDE eta BAINUGELA erreformatan (IGELTSERITZA lanetan) maiatzaren 31ra arte

TEEN-
AJEA

Eibar KE-k ez ditu bere momentu onenak bizi, baina harribitxi bat dauka bere taldean. Euskadi eta Espainiako selekzioekin arituta, Lorena Valderas taldeko zutabe nagusienetarikoa da. 14 urterekin igo zuten lehen taldera eta orain, 18rekin, mailari eustea nahi dio.

LORENA VALDERAS (foballaria):

“Saria da selekzioaren deia jasotzea”

- Gogoritzen dituzu baloiari emandako lehen ostikoak?

Bai, nire auzoan. Lagunekin aritzen nintzen foballean, eta eskolan foball-txapelketan ize-na-emateko aukera eman zigutenean, han hasi nintzen. Urtebeteren ostean, 7 urterekin, Eibartarrakeoekin entrenatzen hasi nintzen eta gero Eibar KE-rekin batu zen taldea. Han infafiletan eta kadeteetan aritu nintzen, eta 14 urterekin Nazional mailako taldera igo ninduten. Gero Superliga delakoa sortu zuten eta urte biz aritu ginen han, iaz mailaz jaitsi ginen arte.

- Aurten 2. mailatik ez jaisteko borrokan zabilzate. Nola ikusten duzu egoera?

Nahiko gaizki, baina ea zulo-tik ateratzen garen. 6 partidu geratzen zaizkigu denboraldia amaitzeko eta 12. postuan gaude. Saillapenean postu bat gorago egin behar dugu mailari eusteko.

- Euskadi eta Espainiako selekzioetan aritu izan zara urte hauetan. Zer ekarri dizu horrek?

Jauzi handia ematea. Jokalari batentzat erakusleho ederrak dira selekzioarekin jokatzen dituen partiduak, entrena-tzaile eta ikuskatzaileak joaten direlako ikustera. Gainera, aurretik egindako lanaren saria da selekzioaren deia jasotzea. Euskadikoarekin, adibidez, 6 urte daramatzat jokatzeko. Espainiako 17 urtez azpikoarekin, bestetik, Holandako Europako Txapelketan parte-hartzeko aukera izan nuen. 1. postuan sailkatu ginen, eta gero selekzioak irabazi bazuen ere, ni ez nintzen aritu azken fase horretan. Egia esan, ez negoen nire momenturik onenean.

- Taldearen egoera kaxkarrak ez du lagunduko.

Ez. Gainera, selekziora doazen jokalaria Bartzelona, Levante edo antzeko talde sendo-etatik doaz, eta euren gogoia altuagoa da. Bestetik, lesioek ere ez dute laguntzen.

- 18 urterekin eta daukazun proiektzioarekin, jasoko zenuen beste talderen baten proposamenik.

Realarekin entrenatzen ibili nintzen, baina Eibarren jarraitzen dut momentuz. Orain mailari eustea da helburua eta denboraldia amaitzerako ikusiko da lortzen dugun.

GAZTEMENUA
barixaku gauetan

txotxa eta
garagardoa barne

DENA
18 €
BARNE



Entsalada mixtoa edo
Bakailao tortila edo
Bakailao konfitatua

Txerri-salheskia parrillan edo
Oilasko errea parrillan edo
Okela gisatua

(Hirurak patata goarnizioarekin)


Gaztala, intxaurrek
eta membrilloa

Ogla, ura, ardoa, garagardoa eta sagardoa

Otaola etorbidea, 3 - atzea
(Hiper Eroskiren alboan)

Iruki
Sagardotegia

Tel. 943 20 68 44
irukieibar@hotmail.com
www.irukieibar.com





Elurra gozamina denean

Neguak zoragarriak dira eurentzat. Gero eta elur gehiago egin, gero eta gehiago gozatuko dute. Somporteko pistek ederki dakite hori. Han aritzen baitira Klub Deportiboko eskiatzaile gazteak (ez badaude Candanchu edo Belagua moduko lekuetan lehiatzen), Eibarko yetiak izango balira moduan.

Ainara Iturrioz, Jone Olabari, Jone Azkarate, Eider Maiztegi, Garazi Goimendiourrutia, Maite Elorza, Maialen Zamakola, Odei Jainaga, Maitane Fariñas, Jone Saez eta Miren Hazasek osatzen dute Deporrekoko eskiatzaile gaztetxoaren taldea (Olaia Sarasola ere taldekidea da, baina Amerikako Estatu Batuetan dago aurten ikasketak egiten). 13 eta 16 urte bitarteko neska-mutilak dira eta pasio bat partekatzen dute: eskia.

Euretariko batzuk gurasoen bitartez jaso zuten eskiarekiko zaletasuna, besteek Lehen Hezkuntzako 5. mailan ezagutu zuten kirol hori. *“Txangoa egin eta asko gustatu zitzaigun”*, diote aho batez. Horrela, eskien gainean bidea egiten hasi ziren. Batzutan gurasoekin autoan joaten dira, beste batzutan autobusean, eta hotel edo barnetegian egiten dute lo.

“Aurten ezin izan gara Gabonetan ohikoa den bezala 4 egunerako joan, ia elurrik ez zegoelako”, damutzen dira gazteak, baina joaten diren bakoitzean ahalik eta gehien aprobetxatzen dituzte asteburuak. *“Azkenean motza egiten zaizu”*. Ikasleak izanik, bestetik, askotan liburuak eramaten dituzte eskia egin ostean ikaste-



Deporrekoko eski batzordeko ordezkariak ondo dakite zer den dominak irabaztea txapelketetan.

ko, *“baina badago bat edo beste ikasten uzten ez dizuna, txantxak egiten dituen”*, diote barrezka.

Domina sorta

Iraupeneko-eskian aritzen dira gazte hauek: *“5 edo 10 kilometroko probak egiten*

ditugu”. Ez dago zalantzarik disfrutatzen dutela. *“Oso ondo pasatzen dugu”*, diote aho batez. Aurten elur gutxi egin du, *“eta batzuetan elurra izoztuta egon bada, beste batzuetan bero gehiegi egin du”*. Hala ere, azken asteburuetan pisten egoera oso ona izan dela aitortzen dute.

Joan den asteburuan, adibidez, Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten Klub Deportiboko eskiatzaileek. Han erakutsi zuten kirola eginez oso ondo pasatzeaz gain, lehiatzen ere iaioak direla. Izan ere, urrezko lau domina, zilarrezko bi eta brontzezko bat eskuratu zituzten eibartarrek. *“Oso emaitza onak lortu genituen, pozik gaude”*, diote irrifartsu. Aipatzekoa da, gainera, Leire Garate eta Naia Carballo 1. eta 2. postuan amaitu zutela seniorren lasterketa, hurrenez hurren.

Udaberriaren etorrerarekin eskiak gorde eta datorren urtera arte itxaron beharko dute orain eskiatzaile gaztetxoek (elurra desagertzen ez den edo pista indoor batera ez badoaz, behintzat). Rollerskiaren txanda iritsi da!



Klub Deportiboan egindako hitzordura agertzen gazte taldeak eskiak gorde eta rollerskiari eutsiko dio hemendik aurrera. / EKHI BELAR

Domekan aurkeztu zuten Portalean Eusko Islamiar Kontseilu eratu berria. Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren musulmanei euren ohitura, kultura eta erlijioaren arabera bizitzeko behar dituzten baldintzak zein baliabideak lortzeko asmoari jarraituta sortu dute elkarte eta horren alde beharrez jarduteko gertu daude kontseiluko kideak, legeak aitortzen eta babesten dizkien eskubideak betetzearen aldeko bidean. Gazteen ekimenez jaio den elkartearen beste herrialde batzuetatik gure artera etorritakoak zein hemen jaiotakoak daude. Azken talde horietakoak dira Eibarren jaiotako Ismael Samadi presidentea eta Yusuf Oroza idazkaria. Presidenteak azaldu dizkigu euren asmo eta proiektuak.

ISMAEL SAMADI, Eusko Islamiar Kontseiluko presidentea:

“Musulmanen premiak betetzeko beharrez jardungo dugu”

- Nolatan jaio da Eusko Islamiar Kontseilua?

Instituzioen aurrean musulman modura dauzkagun premiak betetzea da gure helburu nagusia, orain arte horretarako ordezkari edo mintzaide baliozkorik ez delako egon. Musulmanek urte mordoan daramazkigu hemen bizitzen eta, gurekin lotutako gaien inguruan jarduteko bilera asko egin diren arren, praktikan ez da gauza handirik egin eta gauzak aldatzeko denbora luzea zain eman behar izaten dugu. Elkartearen sortuta, besteak beste, horrelako prozesuak arintzea bilatzen dugu.

- Elkartearen zurekin batera beste eibartar batzuk ere badaude. Gaur egun gure herrian zenbat musulman bizi den badakizue?

Oso zaila izaten da benetako kopuru bat zehaztea, irregulartasunak tartean erregistratu bariko asko egon daitekeelako, baina erroldan jasotakoari begiraturaz gero, 800 bat izango garala pentsatzen dot.

- Eta zeintzuk dira musulman modura daukazuen behar nagusiak?

Estatuaren eta islamiar komisioren arteko kooperazioaren inguruko 26/1992 legea egon badago, baina hemen, estatuko beste toki gehienetan gertatzen den moduan, ez atzera ez aurrera, geratuta dago. Egia da premia batzuk betetzeko moduan izan garelako, adibidez mezkita zabaldua, baina kanposantuen kasuan ez da aurrerapauso handirik eman: gure ohiturei jarraituta hileratu nahi duenak bakarrik Derion dauka horretarako aukera. Bestela, kanpotik etorritakoa izanez gero, gorpua jatorrizko herrialdera bidali, beste aukerarik ez dago, horrek dakarren guztiarekin. Baina ni hemen jaiotakoa naiz eta hiltzean hemen lurperatzea nahiko nuke.

- Hortik kanpora ere, egunerokotasunarekin lotutako beste premia batzuk ere badituzue, ezta?

Bai, adibidez legeak ikastetxe publikoetan, ospitaleetan eta horrelakoetan gure kul-



turari dagokion janaria izateko eskubidea aitortzen badigu ere, praktikan ez da betetzen. Langabeziak ere gizartearen beste sektore batzuei baino gogorrago eragiten digu eta horri irtenbideak bilatzeko beharrez jarduteko asmoa dugu.

- Baina eskaerez gain, musulman eta herriar modura ere gizarteari eskaintzeko gauzak badauzkazue.

Jakina, elkartearen jaio berria da, apenas hiru asteko ibilbidea daukagu eta denbora horretan ezin izan da gauza askorik egin, baina abiarazi nahi dugun lehenengo proiektua elikagai-banku baten sorrera da, premiak daukatenei, musulmanak izan ala ez, jatekoa emateko. Hori martxan ipintzeko tokia bilatzeari zein bestelako guztiak zehazteari ekingo diogu. Jendeak zer egiten dugun, nolakoak garen eta bestelako guztiak ezagutzea gustatuko litzaiguke, ez baitugu ezer ezkututzen. Elkartearen jardunaren berri emateko, bestalde, bloga sortu dugu interneten: sejoislamicopaisvasco.blogspot.com.



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



Radio Eibar

CADENA
SER

104,0 FM



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Bat, bi, hiru... txirloak botatzea helburu. Lau, bost, sei... urte Mahastitik Asola-Berrira joaterako. 45, 46, 47... gaur egungo bazkide kopurua. 48, 49, 50... urte zaletasunari irteera emanez. Txapel asko irabazitako elkarte dugu Asola-Berri, tartean Boloetako I. Nazioartekoa Venezuelan.

ASOLA-BERRI 50 urte hiru-txirloen erreinuan

Hiru-txirloen inguruko mende erdiko istorio (historiako maila ere hartu du dagoeneko) horrek Matsarian zegoen Asola-Zahar baserrian izan zuen jatorria 1962ko abenduaren 8an. Mahasti izena hartu zuen baserri horrek eta ordutik izen horrekin egin da ezagunago gaur egun ere han bertan jarraitzen duen eraikina. Marciano Ugarteburu zen bertako jabea eta berak sortu zuen Asola-Berri hiru-txirloko kirol elkarte, batez ere urte haietan kirol horren inguruko zaletasunak bultzatuta; beste hainbat eibartarrekin bolatoki polita eraiki zuten Mahastin.

Bertaraino joateko arazo estrategikoak tarteko, kokapen berri baten bila hasi ziren eta baita aurkitu ere. Sorreratik sei urtera, 1968ko urriaren 12an, 39 eibartar izan ziren Asola-Berri hiru-txirloko kirol elkarte berria inauguratzen Arrate-balleko bolatoki berrian; bolari haietatik, hamabik bizirik diraute gaur egun. Baina ez dira bakarrak, 50. urteurren honetan 47 bazkide izango baitira urtemuga ospatzen. Sortzaileen espiritu berarekin jarraitzen dute sustatzen aspaldiko euskal kirol modalitate hau, *“onartu arren haiek ereindako hazirik gabe ez ginela hemen egongo”* diote urteurrenaren Batzorde Antolatzailearen partaideek, haien lana errekonozidu eta esker oneko agertzen diren bitartean.

Hamar bolatoki herrian

Eibarren hamar bolatoki izateraino iritsi da: Mahasti, Benta-Berri, Amaña, Salvador, Goimendi, Arrazola, Azitain, Arrate, Agiñaga eta Asola-Berri. Hori bai, guztietatik, Asola-Berri da gaur egun bere kirol ekimenari eusten diona, bai Federazio esparruan



Azken denboraldian ere sari asko bereganatu zituzten Asola-Berrikoek. / LEIRE ITURBE

bai zaletuenean. 80 lizentziatik gora ditu: *“Jendeak jakin behar du federatzeko ez dela beharrezko bazkide izatea; hiru-txirloa praktikatzea gura duen edonor federatu daiteke”*, dioskue.

Lehiatzerakoan ez dira motz gelditzen eta, barne-txapelketetatik hasita, eskualdeko, probintziako, nazional mailako eta nazioartekoetan hartu izan dute parte. Nazioarte mailan, orain dela hamar urte, 2002ko martxoan, Boloetako I. Nazioarteko Txapelketa jokatu zen Venezuelan eta han izan zen Asola-Berriko laukotea (Juan Luis Rodríguez “Txatua”, Felix Gómez “Beltza”, Beñat Gómez eta Mikel Urkia), Euskal Herria ordezkatzeko. Laukote horrek jantzi zuen txapela.

Egitarau betea urte osorako

Bittor Astigarragak, Jesus Mari Muruak, Juan Luis Rodríguez “Txatuak”, Bittor Ugarteburuk, Fran Larreategi “Txopenek”, Josean Blancok eta Josean Urkiak osatzen dute urteurrenerako osatutako Batzorde Antolatzailea. Eta egitarauaren asteburu



“potenteenaren” aurrean gaude, domekan bazkideen arteko txapelketa jokatu baita, kanporaketa bidez: *“Ez hori bakarrik. Emakumeen banakakoa ere izango da eta baita gazteen mailako (alebinak, umeak eta gaztetxoak) banakakoa ere”*. Ahaztu barik bazkideen arteko bazkariarekin borobilduko dutela egun handia.

Prestatutako ekitaldien egitaraua urtea hastearrekin ipini zuten martxan, Urkotik txupinazoa botata, eta gero Klub Deportivoari eta ...eta kitto!-ri luako hamaiketakoan lagunduz. Urtarrilaren 15ean, bestalde, San Anton Saria (Azitaingo patroia) hiru-txirlo jaurtiketa aparta egin zuten. Une honetan bertako bolariak Gipuzkoako 43. Hiru-txirlo Txapelketan daude murgilduta, hamar bolatoki ordezkatzeko dituzten ehun bat bolariaren artean; txapelketa hori Asola-Berriari amaituko da aurten, bazkaria eta sari-banaketarekin.

Ekainaren 23an San Juan jaietako hasierako txupinazoaren protagonista izango dira eta, jai horiek aprobetxatuz, San Juan trofeoa izango da jokoan. Irailaren 8an Arrateko Ama Birjinaren sariketaren txanda izango da Arraten eta urriaren 12an eta 13an hiru-txirlo jardunaldi bi izango dira Asola-Berri: 12an kideen arteko binakakoa jokatu da eta 13an probintzien arteko bolo-txapelketa aparta.


Urriaren eta azaroaren Euskadiko 23. txapelketa jokatu da, lau bolatokiaren partaidezarekin eta, urteko egitarauari amaiera emateko, abenduaren 8an herri-ibilaldia egingo da oinez hasierako Matsariako Mahasti baserritik oraingo Arrate-balleko Asola-Berriaraino, jarraian anaiarteko bazkaria egiteko.

Abascal Memoriala jokatu da domeka goizean

PROBINTZIA MAILAKO 1. ETA 2. URTEETAKO KADETEENTZAT Eibarko Txirrindularitza Elkartek antolatzen duen Abascal Memorialak 33. edizioa biziko du aurten. Domeka goizean, 10.30etan irtengo dute txirrindulariek Untzagatik eta, irteera neutralizatuan, Azitainera joango dira, bertan irteera ofiziala egiteko. Mendarora joko dute, handik bueltan Maltzagatik Bergarara joango dira eta 11.50ak inguruan helmugaratuko dira Urkizuko pasealekuan. Guztira 55 kilometro eta erdiko ibilbidea osatuko dute.

Udaberri Olaberriarentzat

Hilaren 4an jokatu zen Txirrindularitza Elkartek antolatutako proben egitarauko lehenengoa, Udaberri Saria, eta Caja Ruraleko Peio Olaberria izan zen onena, esprintean Sumofic-eko Jokin Etxaberi nagusituta. Bi ordu eta bost minutu behar izan zuten 78 kilometroak betetzeko eta minutu erdiko aldeak kendu zieten atzetik sartu zirenei.



Peio Olaberria Bidebarrietan helmugutzerakoan.



Aurreko edizioetatik ere txapelkun handiak irten dira. / ARTXIBOA

Eskolarteko xake txapelketa datozen asteburu bietan

EIBARKO ESKOLARTEKO XAKE TXAPELKETA ANTOLATUKO DU KLUB DEPORTIBOAK datozen bi domeketan, Eibarko Lehen Hezkuntzako eta DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleentzat. Izenematea irekia da eta Deporren bertan egin behar da txapelketa jokatu den egunean, 10.15etatik 10.45etara; ondoren hasiko dira partidak, eguerdiko 13.30ak arte. Sariak izango dira parte-hartzaile guztientzat eta infantil eta alebin mailetako lehenengoek Gipuzkoako Eskolarteko Jokoetan parte hartzeko aukera izango dute.

Berdinketa Gipuzkoako Ligan

Zapatuan jokatu duen Gipuzkoako Ligako 9. jardunaldian, Deportiboko taldeak berdindu egin zuten Baionakoaren aurka. Julen Garrrok eta Edu Olabek irabazi egin zuten eta Jon Aranak eta Alex Aranzabalek galdu. Bihar Billabona izango dute aurrez-aurre.

Kalamuako judoken hainbat lehiaketa asteburuan



Muguruza eta Hernández Madrilen lehiatuko dute.

GAUR BERTAN IRTENGO DUTE MADRILERANTZ KADETE MAILAKO ESPAINIAKO Kopan Euskadirekin lehiatuko duten Nekane Muguruza (63 kilorainoko mailan) eta Itziar Hernández (70raino) eta gaur da irtezekoa ere beste talde bat Zumarragara hor infantil, kadete eta junior mailetako Espainiako txapelketari be-

gira osatu beharreko Euskadiko selekzioaren prestaketan parte hartzeko.


Bihar, bestalde, Kalamuako lau ordezkari Tolosan izango dira ekainean jokatu den gerriko beltza lortzeko azterketa prestatzen. Eta domekan beste 14 judoka Santanderren izango dira, San Jose Torneoaren XVII. edizioan parte hartzeko.

Waterpolo Eskolakoek laugarren torneoa bereganatu dute

URBAT-URKOTRONIK-EKO ALEBIN MAILAKO TALDEAK, DONOSTIAKO NAZIOARTEKOAN egindako lan aipagarriari jarraituz, beste torneo bat irabazi du, aurtengo laugarrena, oraingoan Bilboko Maristasen igerilekuan: 5-2 nagusitu zitzaion Náuticoari, 6-3 Maristasi eta 8-1 Lautadari. Infantil mailako taldea ez da atzean geratu eta bezperan, zapatuan, 2-21 gailendu zitzaion Waterpolo Donostiari.

Bestalde, seniorrei dagokienez, zuzenean igotzeko neurketa erabakigarrian, eibartarrek 12na berdindu zuten Santoñan, azken segunduan zutoinera bidalitako baloi batekin.

Mendaroko mendi lasterketa apirilaren 15ean



IAZ MARTXAN IPINI ZEN MENDI LASTERKETAREN BIGARREN EDIZIOA JOKATUKO DA hemendik hila-bete batera. 24 kilometro ditu probak, bakarra asfaltoaren gainean, eta 1.350 metroko desnibela gainditu beharko dute parte-hartzaileek. Irteera (goizeko 10.00etan) eta helmuga Mendaroko Herriko Enparantzan kokatuko da eta izena emateko 15 euro ordaindu beharko dira (egunean bertan, 18 euro). Informazio gehiagorako, mte.mendaro@hotmail.com helbidera eta 646-119877 telefono zenbakira jo dezakezue.

Bihurri munduko beste marka berri baten bila

MUNITIBARREN DU HITZOR- DUA ERNESTO EZPELETA "BIHURRIK" HILAREN 25-EAN, bertan esku bakarrarekin 3 metrotik gorako perimetriko enborra moztzen ahaleginduko baita. Espezialista bada ere esku bakarrarekin moztzen, "mugan jardungo" duela uste du aizkolari eibartarrak, "100 minuturen bueltako zeregina" aurreikusten baitu, "lana amaitzeko gauza baldin banaiz behintzat". Goizeko 11.00etan hasiko du saioa eta kirten luze-ko aizkorak erabili beharko ditu, metro eta erdikoak tarteko. Pare bat dozena aizkora eramango ditu, "adar txarrekin" topo ez egiterik espero duen kirolariak. Bitartean, astebete iraun duen arren erdi-gaixorik eta ahul, gogotik dihardu pres-



tatzen, serieak eginez eta "pe-
txua egiten, horrelako proba lu-
zeetan, indarrarekin batera, ar-
nasa ondo hartzea baita ga-
rrantzitsuena". Erloko puntan
harrapatu genuen gurekin ber-
ba egin zuenean, bere lauga-
rren munduko markaren bidea
modu egokienean prestatzen.

Infantil mailako rugbilariak Unben

**AURREKO DOMEKAN IN-
FANTIL MAILAKO GIPUZKO-
AKO TXAPELKETAREN
JARDUNALDI** berria jokatu
zen Unben. Eibar Rugby Talde-
ak (Atco. San Sebastianeko jo-
kalaria batzuekin) 30-10 irabazi
zion Iruñako La Unica RT-ri eta

15-25 galdu La Rioja eta Irun-
go jokalarien arteko konbinatu
bati. Eibar Rugby Taldearen al-
detik hauexek jokatu zuten:
Andoni Silvestre, German Gó-
mez, Andoni Vergara, Axel Zer-
pa, Unai Fernández, Xabier
Astarloa, Xabier Albizu eta
Eneko Iriondo.

Bestalde, **talde nagu-
sia** gaur bertan zen
abiatzeko. Avilesera
bihar Muro de Zaronen
jokatuko duen partidua
prestatzeko. Belenos du
aurkari igoera promozio-
ko kanporaketan eta
emaitza onarekin buel-
tatzea espero dute, gero
Unben igoera ospatzeko
asmoz.



Romarateren lorpenak igeriketan

**ANDER ROMARATE URBAT-URKOTRONIK-EKO IGERILARIA
BERRIRO NABARMENDU DA** Espainiako igeriketa egokituko txapelketan. Castellón jokatutako autonomien arteko Espainiako Open txapelketetan, 50 eta 200 metroko probetan nagusitu zen, 43"66 eta 3'25"14 denborekin, hurrenez hurren.

Herriko taldeen arteko derbia saskibaloian

**EZ DAUDE EGOERA BE-
REAN, BAINA DERBIAK
BETI DUTE ZEOZER BE-
REZIA.** Hala ere, Ruibal li-
derra da faborito bihar arratsaldeko 18.30etan Ipuruan jokatu-
ko den lurraldekako 3. mailako 17. jardunaldiko partiduan. Lehenengo itzulia-
ren ere 55-41 nagusitu zen gaur egungo liderra eta oraingoan, mailaz lehenbai-
lehen igotzeko asmoz, garaipena errepikatu nahiko du; dena dela, badu tarte-
a galduta ere mailaz igotzeko. Katu Kalek defentsan oinarrizten du bere jokoa eta ahaleginduko da ezustekoa ematen.



Eibar Foball Taldeak hurrengo eguaztenean ere jokatuko du

ZORTZI EGUNETAN HIRU PARTIDU JOKATU BEHARKO DITU EIBAR KE-K: bihar arratsaldean, 18.00etatik aurrera, Zamora hartuko du Ipuruan eta eguaztenean, gaueko 21.00etan, neurketa zailagoa izango du, Ponferradinaren El Toralín zelaian borrokatu beharko baitu aurkari zuzen batekin. Taldea gero eta sendago ikusten da ligako azken txanpari ekiteko, gol gutxi jasoz eta, batez ere, etxean nagusitasuna erakutsiz. Igoera fasea jokatze bidean, bestalde, handiagotu egin du aldea bosgarrenarekiko.

Eibar Eskubaloia marka guztiak txikituz

TALDE SORTU BERRIA INDAR HANDIZ SARTU DA LEHIAKETA MUNDUAN eta, batez ere, senior mailako lehen taldeak hobetu ezin daitekeen maila erakutsi du. Liga amaituta, partidua guztiak irabazi ditu erraztasun askoz, gol gehien sartuz (708: 44 gol partidua bakoitzeko) eta askogatik gutxien jasoz (265: 16 partiduko). Saillapeneko bigarrenari hamar puntu atera dizkion taldea 1. mailako lurraldeko txapelketan jokatuko du datorren denboraldian eta orain, Gipuzkoako Kopa hasi behar denean, estatuko 1. eta 2. mailako taldeekin jokatze eskatu du.



Antzerki Jardunaldiek martitzenean biziko dute egunik eibartarrena. 'Un loco de desatar (las paradojas de El Cosmico)' lanak eszenatoki gainean (Sardo Irisarri), antzerkiaren zuzendaritzan (Rosa Martínez-Alcocer) eta lanaren autoretzan (Juan Sanchez Vallejo) eibartar bana ditu. Herriko ordezkariak, beraz.

ROSA MATEZ.-ALCOCER, antzerki zuzendaria:

"Antzerkiaren pozoia barrenean daramat"



- Autore eibartarra, zuzendari eibartarra eta aktore eibartarra ditu antzezlanak. Zer iritetzen da guzti horretatik?

Hilaren 20an Antzerki Jardunaldietan ikusiko den antzezlanak (barreak). Azaroan estreinatua genuen, Eibarren, eta publikoak oso ondo hartu du. Muturrera eramandako pertsonaia aurkezten da bertan, itxialdian dagoen zoro bat, eta bizitza berriaren aurrean duen beldurra erakusten du. Publikoarekin ondo enpatizatzen du eta denak identifikatzen gara pixka bat pertsoniarekin. Bestetik, Sardok egiten duen lana nekeza da, ordubeteko monologoa, eta pertsonaiaren egoera emozional zaila irudikatzen du. Gaitza da eta, gainera, hainbat pertsonaia antzezten ditu. Publikoak Sardoren lana baloratzen duela esango nuke. Orduan, nahasketa harrigarria izan da, baina lasaia (barreak). **- Sardo da antzezlaneko aktore bakarra. Zuzendari moduan, errazagoa da zuzentzea horrela izatea?**

Ez, ezberdina da. Komunikazio asko egon behar da zuzendaritzan eta aktorearen artean horrelako kasuetan. Zorionez, gure artean konplizitate handia zegoen, antzerki-talerekin kideak baikara. Horrek

lana asko errezen du. Konplizitatea beti da garrantzitsua alde bien artean, baina aktore gehiago badaude, ihesbide gehiago dago; Sardok ez du ihesbiderik izan ni ezik (barreak). Prozesua, zentzu horretan, latza (batez ere Sardoren zat) eta arina izan da era berean. Gorputzak eskatzen zizun erritmoan egin dugu lan, errespetu handiz.

- Antzezlan honetan zuzendari lanak egiten dituzu, baina aktorea ere bazara.

Bai, baina momentu honetan ez nabil lanean aktore moduan. Ez ditut ateak ixten, baina zuzendaritzan egotea nahiago dut azkenaldian. Aktore bezala zaudenean gehiago bidaiatu behar duzu, pertsonaia zureganatzeko prozesu batean konprometitu, eta abar. Antzeppenetik kanpo, bestetik, ordutegi egonkorragoa daukazu, bizitza bareagoa (nahiz eta antzerkian ez egon ezer oso egonkorra). Momentuaren arabera, gauza bat bestea baino nahiago duzu. Antzerkiarekin zerikusia duen edozertan aritzea gustatzen zait. Egiten dakidana da, antzerkiaren pozoia barrenean daramat eta, nik esaten dudana bezala, horrelakoa egitera kondenatuak gaudete (barreak).

Susana Jodraren serigrafiak Portalean

Aurreko barixakuaz geroztik Susana Jodra teknika grafikoetan espezializatutako artistaren lanak batzen dituen "Taldekako mugimendutik bakardadeko gelditasunera" izenburuko erakusketa ikusgai dago Portalean. Engranaje itxurako gurpilak erabilia sortutako artelaneekin ikusleak mugimenduen inguruko hausnarketara bultzatu nahi ditu artistak. Emakumearen Egunaren programaren baitan antolatutako erakusketa apirilaren 1era arte egongo da ikusgai, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara.




Sostoa abesbatzaren kontzertua

Bihar iluntzean, 20.00etan Sostoa abesbatzak kontzertua eskainiko du Karmengo Amaren elizan (Karmelitetan). Eibartarrek batera Azkoitiko Iraurgi abesbatzak ere jardungo du kantuan, abesbatza bien arteko elkartrukea egingo dute-eta. Sostoa hil honetan bertan bueltatuko die bisita, Azkoitian martxoaren 31n kontzertua eskainita.


Industria-argazki lehiaketako ebazpena

Armeria Eskolak antolatutako VI. Industria Argazkilaritza Lehiaketara aurkeztutako 116 lanen artean irabazlea "Ziass", Zigor Astigarragaren argazkia izan da. Bigarren postuan "Leidenfrost", Javier Arcenillas madrildarraren lana geratu da eta hirugarren saria Basauriko Asier Camachok eskuratu du, "Paisajes Industriales!" izenburuarekin. Ikasle-ohi onenari saria Ermuko Joaquin Sanchez Romerok eraman du, "Amare" lanarekin. Aurten, gainera, Mendurrenaren Sari Berezia ere eman dute antolatzaileek eta hori Federico Cuenca Larreategik jaso du, "El Sueño del Abuelo" argazkiarekin. Martitzen gauean irabazleak aukeratu zituen epai-mahaia Armando Lasa, Jorge Agirresarobe, Lucho Rengifo, José Luis Irigoien, Martín Galarza, Aitor Buendía eta José Valderrey-k osatu dute.



Giro aparta Kulturen Bertso Astean

ARRATE KULTUR ELKARTEAK ANTOLATUTAKO BERTSO AS-TEAK, OHIKO MARTXARI JARRAITUTA, bertsozale mordoia elkartu zituen aurreko astean: eguenean Amaia Agirre eta Julio Soto bertsolariak Kultu tabernan eskaini zuten saioa eta zapatuan, berriz, bertso-bazkarira joan zirenak ederto pasatu zuten Maialen Lujanbio eta Jon Maia- ren bertsoekin.



Euskal-dantza ikastaroa

Bestalde, Euskal Jaia gerturazten do-ala-eta, Arrate Kultur Elkartek larrain- dantza, fandangoa eta arin-arina dan- tzatzen ikasi nahi dutenentzat ikastaroa antolatu du. Pazko Astea igarota, apirilaren 18an hasi eta maiatza- ren 23an amaituko da (6 asteko iraupena). Klaseak eguaztenetan izango dira, arratsaldeko 19.00etatik 20.30etara, Arrate Kultur El- karteko 1. pisuan. Izena-emateko, Arra- te Kultur Elkarteko bulegora joan daite- ke (martitzen edo eguen arratsaldetan), 943 202299 telefono zenbakira deitu edo arratekultu@gmail.com helbide- ra idatzi. Prezioa 12 eurokoa izango da bazkideentzat eta 15 eurokoa, berriz, bazkide ez direnentzat.




Udalekuetarako izen-ematea

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ANTOLATZEN DITUEN UDALEKUETAN izena aurrez emateko epea atzoz geroztik zaba- lik dago: 7-13 urte bitarteko umeen izen-ematea hilaren 23ra ar- te egin beharko dute interesatuek eta horretarako zein informazio zabalagoa eskuratzeko Gazte Informazio Bulegora (Portalea, 943708435 telefono zenbakia) zein Gipuzkoako Foru Aldundira (943445980 telefono zenbakia) jo daiteke edo, nahiago izanez ge- ro, interneten www.gipuzkoa.net/oporraldi webgunea kontsultatu.



Antzerki Jardunaldiak



Martxoak 17
20.30
Unibertsitatean

“Don Juan Tenorio” La Garnacha Teatro

ALVARO APPELLANZ, LUIS MIGUEL RUIZ, SERGIO SAN JUAN, ROBERTO RIVERA

Espainiar antzerkigintzako klasiko “ezinbesteko” hau oraindik ez da sekula eskaini Jardunaldietan. Testuarekiko fidela izateaz gain, distiratsua, berritzailea eta zorrotza da bertso hau. Errima eta apaingarriak baztertuta, pertsonaia nagusian sakontzen du.



Martxoak 20
20.30
Coliseoan

“Un loco de desatar” Trastada Teatro

SARDO IRISARRI

Eibartarrez osatutako hirukotea: Sardo Irisarri antzezlea, Juan Sán- ches Vallejo Toledon jaiotako egilea eta Rosa Martínez-Alcocer muntaiaiko zuzendaria. Eroetxe batean hogeitaz urte eman ondoren, El Cósmodok bere abenturak eta zoritxarrak kontatuko dizkigu.



Martxoak 21
20.30
Coliseoan

“El juicio de Dayton” Azar Teatro

ISAAC BRAVO, CESAR MARTÍN, FRANCISCO MATEO, CHUS DE LARA

Lan honetan interpretazioak du lehentasun osoa. Istorioa 1925ean garatzen da, Tennessee estatuan, irakasle gazte bat epaitua denean “legea hausteagatik”. Orduko eta gaur egungo gizartearen arteko an- tzezotasuna azpimarratu eta ideien erradikalizazioa salatzen da.



“Cartas a Dios”

Zuzendaria: ERIC-EMMANUEL SCHMITT
MICHELE LAROQUE, AMIR, AMIRA CASAR

Oscar eta Mamie Rose eleberriarren ira- kurlak ez luke pentsatuko protagonistak egiten dituen galderak, hausnarketa eta eskaerak Jaunari bidaltzen dizkion gutu- netan halako indarra izango zutenik.

Martxoak 22
17.30/21.00 / Unibertsitatean

laburrak

KOKEINEN GRABAZIOA

Zapatuan bideoklipa grabatuko du Kokein taldeak eta bertan parte-hartu nahi duenak horretarako aukera izango du, 16.00etan Untzagako zine-ohira agertuta. Taldekoen berbetan, "erropa beltza edo-eta zuria (hobe beltza) eta aurpegia margotzeko prest egotea, besterik ez da behar, beraz animatu, ederto pasatuko dugu-eta!".

USARTZAKO ERROMERIA

Martxoaren 25ean ospatuko da Usartzako Erromeria, Angel Pérez Sarasketa soinujoleak, Narbaiza eta Meabebaste-rrerxea bertsolariek eta Kezka dantza taldeak girotuta. Krabelin jatetxean 14.00etan egingo den bazkarirako txartelak 30 eurotan daude salgai bertan eta menua honakoa da: vieira gainerrea, arrain-zopa, legatza laban, postrea, ogia, edariak eta kafea.

INGELES-UDALEKUAK

Miriam Arenas eta Amaia Osoro psikologo eta pedagogoak, Nekane Pastor hizkuntz-akademiarekin elkarlanean, uztaileko ingeles-udalekuak, Emotional Summer Camp antolatzen dihardute eta horri buruzko bilera informatiboa eguenean, hilaren 22an egingo dute, 20.00etan, J. Etxebarria kaleko Euskadiko Kutzaren lokalean.

GOI ARGI

Urteko batzarra egingo dute Goi Argi elkarteok domekan, 18.00etan lehenengo deialdian eta 18.30etan bigarrenan (Toribio Etxebarria, 19-1). Batzarra amaituta oparienez zozketa egingo dute eta, ekitaldia agurtu aurretik, Goruntz abesbatzak emanaldia eskainiko du.

Udaberriari ongi-etorria emateko jaia

ABONTZAKO ITTURIXA ELKARTEAK ANTOLATUTA ETA AZKEN URTEOTAKO MARTXARI JARRAITUTA, domekan udaberriari ongi-etorria emateko jaia ospatuko da Abontzako parkean (Egigurentarren parkean). Eguerdiko 12.30etatik aurrera, auzo gaineko zerua kolorez beteko dutela iragarri dute antolatzaileek, puzgarriak askatuko dituzte-eta. Eta, horrekin batera, auzoko hormetan udaberriari ongi-etorria emateko marrazkiak eta mezuak margotuko dituzte, hormetan horretarako bereziki egokitutako guneetan. Eta horiei laguntzeko, betiko moduan musika, pintxoak eta edariak



Gerturaten den guztiak hartuko du parte zozketan. / MAIALEN BELAUSTEGI

izango dira. Gainera, zerbait hartzen dutenei sari ederra emateko aukera eskainiko diete, zozketan parte-hartzeko txartelak musutruk banatuko dizkiete-

eta. Jaia biribiltzeko, puzgarriekin batera gazteentzat jolasak antolatu dituzte eta puzgarririk handiena egiten duenarentzat sari berezia egongo da.

Trabesa, Eibar definitzeko berbarik aproposena

EUSKALTEGIEK ETA UDALAK ANTOLATUTAKO BERBA LEHIAKETAKO IRABAZLEA AUKERATU dute, epai-mahaiaren iritzia eta web orrian jasotako botuak kontuan hartuta: Igone Lamarainek proposatutako "trabesa". Zozketa bidez

aukeratutako irabazlea, bestalde, Inés Fernández izan da eta berak lehiaketara aurkeztutako berba, berriz, "Kultura Anitza". Gure herria egokien definitzeko lehiaketan 73 parte-hartzaile izan dira eta proposatutako berbak, berriz, 67. Trabesa berbak jokoetan (bola-jokoan, txirluetan) egiten ziren apustuak ekartzen dizkio gogora irabazleari, baina, horrekin batera, berak dio Eibarko herriak gauza askoren aldeko apustua egin duela: *"Andrak lan mundura gerturaten lehenengo herrietakoa izan zen, beharginen eskubideen aldeko borroketan eta euskalgintzak euskara bultzatzeko bideratutako ekimenetan (gau-eskolak, ikastolaren sorrera, ...) aitzindaria eta, batik bat, 'Eibar eredugarria' izan dadin egindako ahalegina"* azpimarratu ditu Lamarainek.




Eibar, besteak beste, emakumeak lan-mundura sarztearen alde trabes egiten lehenengoetakoa izan zen. / F. CASTRILLO ORTUOSTE BILDUMA

Euskeraz idatzitako nobela berriak liburutegian


JUAN SAN MARTIN UDAL LIBURUTEGIAK EUSKARAZ ARGITARATU DIREN NOBELA BERRIEKIN boletina sortu du. Honakoak dira aurkitu daitezkeen liburuak: El deseo según Gilles Deleuze (Maite Larrauri), Suite frantsesa (Irène Némirovsky), Neure buruaren alde (Koldo Zuazo), Dekameron (Giovanni Boccaccio), Jakobian eraikina (Alaa al Aswani),

Errauts (Eneko Aizpurua), Aitarren pitokeriak (Justin Halpern), Brodecken txostena (Philippe Claudel), Hilabete bat Montalbanorekin (Andrea Camilleri), Erruletazalea (Mircea Cartarescu), Gezurra odoletan (Asel Lu-zarraga), Gerrako ipuinak (Suntti Amilibia), Hegorik gabeko txoriak (Jose Javier Abasolo), Twist (Harkaitz Cano) eta Argiaren erreinua (Joseba Lozano).




laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, OIHANE, bixar hiru urte egingo dozuz-eta. Aitaxo, amatxo eta MAIDER ahiztiaren partez.




Zorionak, JONE Sotes, harañegun bost urte egin zenduaz-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, ARRATE, bixar hamar urte beteko dozuzelako. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, KEPA, domekan hiru urtetxo beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MIKEL, atzo sei urte egin zenduaz-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, MIKEL, zure zortzigarren urtebetetzian. Muxu pillo bat famelixaren partez.



Zorionak, GALDER (astelehenian gure poxpoliñak urtebete egingo dau) eta LOREA (gure printzesak bost egin zittuan hillaren 10ian). Milla muxu famelixaren partez.




Zorionak, MARKEL, bixar zortzi urte beteko dozuzelako. Laztan haundi bat famelixaren eta, batez be, Unairen partez.



Zorionak, LEIRE, atzo zazpi urte egin zenduaz-eta. Famelixa guztiaren eta laguneren partez.



Zorionak, CYNTHIA, domekan hamahiru beteko dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez. Holan segidu!



Zorionak, MIREN, eguaztenian zazpi urte beteko dozuzelako. Laztan haundi bat famelixa eta laguneren partez.

HILDAKOAK

- Josefina Abarrategi Abarrategi. 91 urte. 2012-III-7.
- Carlos Martín Bueno. 65 urte. 2012-III-8.
- Julia Rodríguez Alvarez. 89 urte. 2012-III-8.
- Herminia Errasti Unzueta. 94 urte. 2012-III-10.
- Hilario De la Calle Marcos. 61 urte. 2012-III-11.
- Humberto Bikandi Ugalde. 88 urte. 2012-III-12.
- Josefa Larruskain Garitagoitia. 79 urte. 2012-III-13.
- M^a Pilar Lentijo Betegón. 86 urte. 2012-III-13.
- Lucila Rivas Tesouro. 87 urte. 2012-III-13.
- Ines Cano Ruiz. 98 urte. 2012-III-14.
- Felipe Ugarteburu Onaindia. 59 urte. 2012-III-14.

JAIOTAKOAK

- Maitane Berakoetxea González. 2012-III-5.


zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

16an: 22.30
17an: 17.00, 19.45, 22.30
18an: 17.00, 20.00
19an: 20.30

"Esto es la guerra"

Zuzendaria: McG




(2 ARETOAN)

16an: 22.30
17an: 17.00, 19.45, 22.30
18an: 17.00, 20.00
19an: 20.30

"Dictado"

Zuzendaria: A. Chavarrias



(ANTZOKIAN)

16an: 22.30
17an: 19.45, 22.30
18an: 20.00
19an: 20.30

"Contraband"

Zuzendaria: B. Kormákur




(ANTZOKIAN)

17an: 17.00
18an: 17.00

"Viaje al centro..."

Zuzendaria: Brad Peyton



horoskopoa

ARIES

Asteburu ederra duzu aurretik, gaur nahiko makal sentituko zaren arren. Bihar goizetik domeka gauera arte momentu bikainak pasako dituzue.

TAURUS

Antzerki Jardunaldietan egon zarena igartzen da, interpretaziorako dituzun dohaia handitu egin baitira. Baietz hurrengo Oscarra zuk zeuk irabazi?

GEMINI

Hondarra behazetan sentitzea, olatuen doinua, siestatxoa palmondo azpian... lasai, gero eta gutxiago falta da oporetzat gozatzeko. Eutsi horri!

CANCER

Txarto zabilta eta ez duzu asmatuko: aurreikuspenak ez dira beteko eta planak aldatu beharrean izongo zara. Ea hurrengoan zorte gehiago duzun.

LEO

Batekin nahikoa ez bazenu, bigarrena hurbildu da zure bihotzera. Zer egin horrelako egoera batean? Bihotzak esango dizu zer egin. Edo buruak?

VIRGO

Nekez gogoratuko zara domeka goiz batean hasi zela dena. Bai: domeka goizetan ere bizitza existitzen da, zuk aspalditik ezagutzen ez baduzu ere.

LIBRA

Oso kuttuna duzun jertsea bota beharrean izango zara eta berarekin bizitako uneak etorriko zaizkizu gogora. Ederrago bat erosi eta kitto!

SCORPIUS

Aurretik ez duzu izan arazo horiek konpontzeko aukerarik: orain heldu da sasoi. Erantzun ona jasoko duzu eta konponbidea hurbilago izango da.

SAGITTARIUS

Egun batean ezkontza egunean pentsatzen duzu, hurrengoan dena laga eta alde egitean... Ezer egin baino lehen, ondo pentsatu ezazu!

CAPRICORNIUS

Umorea pixkat aldatuko zaizu datorren astean, baina onera. Irrifarrea ahoan, berba onak besterik ez dituzu edukiko besteentzat.

AQUARIUS

Kalimotxoa, garagardoa, sagardoa... berdin zaizu, kontua da lagun artean momentu ederrak pasatzea. Ongi da, baina ez pasa! Zaindu osasuna!

PISCIS

Ohitura polita berreskuratuko duzu: irakurtzea. Liburu on bat hartu, lasaitasunez eta orriak pasatzen hasi. Milaka abentura berri dituzu aurretik!

Barixakua 16**INAUGURAZIOA**

19.00.- Esther Agirre Garziandiaren margo erakusketaren inaugurazioa. Topalekuan.

Zapatua 17**LANDARE AZOKA**


09.00.- Il. Lore eta Landare Azoka. Urkizuko parkean.

EUSKARAZ BIZI

10.15.- Donostiara, EHE-ren Euskaraz Bizi Egunera joateko autobusaren irteera. Ego Gaietik.

**GRABAZIOA**

16.00.- Kokein taldearen bideokliparen grabazioa. Untzagan (zinean).

**KONTZERTUA**

20.00.- Sostoa abesbatzaren kontzertu sakroa, Azkoitiako Iraurgi abesbatzarekin batera. Karmelitetan.

ANTZERKIA

20.30.- "Don Juan Tenorio", La Garnacha Teatro. Sarrera: 11 euro. Hezkuntza Esparruan.

Domeka 18**TXIRRINDULARITZA**

10.30.- XXXIII. Abascal Memoriala. Untzagan.

UDABERRI JAIA

12.00.- Udaberriari ongietorria emateko jai. Abontzako parkean (Egigurentarreneko parkean).

**KONTZERTUA**

12.30.- Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

HIRU-TXIRLO

13.00.- Hiru-txirlo tiraldia.
14.30.- Bazkaria.
17.30.- Bazkideen arteko Sari Nagusia. Asola-Berri bolatokian.

**BATZARRA**

18.00.- Goi-Argi elkartekoen urteko batzarra (2. deialdia 18.30etan). Elkartearen egoitzan (T. Etxebarria, 19-1º).

Martitzena 20**IKASTEN**

10.00.- "Afectividad y sexualidad", Iñaki Aragonen eskutik. Armeria Eskolan.

ANTZERKIA

20.30.- "Un loco de desatar (las paradojas de El Cósmico)", Traslada Teatro. Sarrera: 11 euro. Coliseoan.

Eguaztena 21**HITZALDIA**

10.00.- Martxoak 29rako grebari buruzko hitzaldi informatiboa, ELAko kide eta laguntzat. ELAko egoitzan.
18.00.- Martxoak 29rako grebari buruzko hitzaldi informatiboa, ELAko kide eta laguntzat (Armeria Eskolan).

IKASTEN

10.07.- Mendi-ibilaldia: Zestoa (Akuako itzulera). Zumaiara joateko trenaren irteera Ardantzatik (Estaziñotik 10.13etan).

ANTZERKIA

20.30.- "El juicio de Dayton", Azar Teatro. Sarrera: 11 euro. Coliseoan.

Eguena 22**IKASTEN**

10.00.- "Elogio de la lentitud. El momento slow", Jose Domingoren eskutik. Armeria Eskolan.
19.30.- Kaleetan Kantuz-ekoen entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ANTZERKIA

17.30 eta 21.00.- Zinea: "Cartas a Dios". Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

GURASOAK MARTXAN

18.30.- "Autoritatea familiar" hitzaldia, gurasoentzat. Urkizu ikastetxean.

BATZARRA

19.00.- ...eta kitto! Euskara Elkartearen ez-ohiko batzarra eta urteko batzar nagusia (bigarren deialdia 19.30etan). ...eta kitto!-ren egoitzan (Urkizu, 11 solairuarean).

BILERA

20.00.- Emotional Summer Camp uztaileko antolatuko diren ingeles-udalekuei buruzko bilera informatiboa. Julian Etxeberriako Euskadiko Kutxaren lokaletan.



erakusketak

- Martxoaren 16tik 25era arte
ESTHER AGIRRE GARZIANDIAren margo erakusketa. *Topalekuan.*
- Martxoaren 31ra arte
JUAN IGNACIO AIZPURUAren "Lehen urratsak" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- JOSE LUIS MARTINEZ**en "Bardeak" argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- "**BALENTZIAGA OROITZARREA.** Ixuako mendatea" argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*
- "**EMAKUMEAK: NOBEL SARIAK**" informazio-topagunea. *Juan San Martin liburutegian.*
- IKER IGLESIAS**en "Txina" argazki erakusketa. *Debegesan.*
- Apirilaren 1era arte
SUSANA JODRAren "Taldeko mugimendutik bakardadeko gelditasunera". *Portalean.*

lehiaketak

- **LHko eta DBHko XVIII. Ipurterre Ipuin Lehiaketa.**
Norentzat: LH (ipuin) eta DBH (gutuna) ikasleentzat. Informazioa eta lanak entregatzea: **Martxoaren 19ra arte**, ...eta kitto! Euskara Elkartearen.
- **Eguen Zuri Argazki Lehiaketa.**
Lanak entregatzea eta informazioa: **Martxoaren 20ra arte**, Arrate Kultur Elkartearen.
- **Haurrentzako I. Ipuin Lehiaketa.**
Norentzat: 8 eta 12 urte bitartekoentzat, euskeraz eta gazteleraz. Informazioa eta lanak entregatzea: **Apirilaren 14ra arte**, El Corte Inglés-en.

telefono jakingarriak

- SOS delai112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea**943 70 07 99**
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.**943 46 46 22**
- Gurutze Gorria..**943 22 22 22**
- Mendaro osp.....**943 03 28 00**
- Anbulategia.....**943 03 25 00**
- Torrekuia**943 03 26 50**
- Errepideak.....**902 11 20 88**
- Ertzaintza**943 53 17 00**
- Eusko Tren**902 54 32 10**
- Pesa**902 10 12 10**
- Taxiak.....**943 20 30 71**
-**943 20 13 25**
- Alkohol.Anon. ..**629 14 18 74**
- Al-Anon/Alateen **650 26 59 63**

autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 18.30etara orduro, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 15.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara orduro. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara orduro eta 21.55.

tren ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara orduro, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

farmaziak

- 16, barixakua**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- 17, zapatua**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 18, domeka**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 19, astelehena**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 20, martitzena**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 21, eguaztena**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 22, eguena**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 23, barixakua**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

SUDOKUA

9			6			1
		5	1	2	3	
	3		4			8
3	8				2	
		2				1 7
	2			7		3
		3	1	4		5
4			9			3

DENBORAPASAK

8	4	3	1	2	6	5	7	9
5	7	6	4	8	9	1	2	3
9	1	2	3	5	7	6	8	4
1	5	7	8	6	9	4	2	3
3	9	4	5	1	2	7	6	8
2	6	8	7	4	3	9	1	5
6	8	5	2	9	1	3	4	7
4	3	1	8	7	9	2	6	5
7	2	9	6	3	4	8	5	1

AURREKOAREN EMATZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Terrazadun atikoa salgai Eibar erdialdean. Berrria. 280.000 euro, BEZ-a eta guzti. Tel. 647-952677.
- Pisua salgai T. Etxebarria kalean. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Oso argitsua eta aukera askorekin. Tel. 659-208746.
- Pisua salgai. Logela bi, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Kafekazioarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 156.263 euro, negoziagarriak. Tel. 695-851722.
- Pisua salgai Sorraluzen, Zeleta kalean. 3 logela, sukalde-jangela eta komuna. Ganbara eta kafekazioa. Eguzkitsua. Sartzeko moduan eta altzari berrieekin. Garajea aukeran, pegora ondoan. 135.000 euro. Tel. 696-658413 eta 626-666919.
- Pisua salgai Amañako plazoletan. 2 gela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Dena kanpora begira. 100.000 euro. Tel. 685-728995.
- Eibarko Txikito kalean pisua salgai. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Ilogailua. 150.000 euro. Tel. 672-622774.

1.2. Errentan

- Conilen "Playa El Palmar" etxea alokagai, abuztuan izan ezik. Hondartzatik 500 metrora. Logela bi, lorategia eta parking-a. Merke. Tel. 607-310266.
- Pisua alokagai Bidebarrieta 28an. Tel. 652-764566.
- Esteponan (Málaga) pisua alokagai, kaia eta hondartzaren ondoan. 3 logela, egongela, komun bi eta terraza (itsasora). Dena kanpora eta jantzita, elektrogailu eta ohe-arroparekin. Tel. 945-621015 eta 645-728317.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Renault Scenic autoa salgai. Gasolina. 2009ko irailean matrikulatuta. 43.000 km. Tel. 605-721711
- Opel Astra 1.6 salgai. 75cv. 212.000 km. Olioa eta gupilak aldatu berri. Sony irratia mp3 irakurlearekin. 1.500 euro, negoziagarriak. Tel. 686-234684. Mikel.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Asua-Errekan (Urkizu) garajea salgai. Sarrera onarekin, eroso eta azkarra sartzeko. Tel. 670-793312.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

3.2. Errentan

- Garajea alokagai Arrate-Biden. Itxia, behe solairuan eta garbategiarekin. 90 euro. Tel. 679-310083.
- Lokala alokagai Ubitxa kalean. 100 m². Behe solairuan. Irteera zuzena kalera. Tel. 617-688311. Maria.
- Asua-Errekan garaje txikia alokagai. Prezio onean. Tel. 652-700919 eta 666-845249.
- Ileaipaindegia alokagai, arazo pertsonalarengatik. Oso merke. Tel. 667-806737.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 690-861846.
- Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 635-237518.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 628-318570.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 650-152866.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 695-303237.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 617-844142.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko sozietateetan. Tel. 659-037882.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, pintore-laguntzaile moduan eta sozietateak garbitzeko. Tel. 647-898016.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 670-251265.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-249775.
- Neska eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 647-266965.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 646-778839.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-887814.
- Neska eskaintzen da kamarera jarduteko eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 626-497413.
- Neska eskaintzen da ileapaintzaile-laguntzaile jarduteko eta garbiketa lanetarako. Tel. 695-705617.
- Mutila eskaintzen da arotz jarduteko, baserrian lan egiteko, nagusiak zaintzeko etabar. Tel. 682-290521.
- Geriatrian eta psikologian esperientzia duen emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 635-313375.
- Mutila eskaintzen da pintore jarduteko, igeltsero-laguntzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-798768.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 689-798284.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 943-029329.
- Magisteritzako ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 638-855268.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxea garbitzeko. Esperientzia. Tel. 690-925929.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Egunez eta gauez. Tel. 675-007271.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-255663.
- Gizona eskaintzen da edozein lanerako: sukaldari-laguntzaile, nagusiak zaindu... Tel. 690-156040.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 680-526228 eta 943-530076.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 681-109221.

4.2. Langile bila

- Ostalaritza aprendiz behar da (30 urtetik behera). Kontratua eskainiko zaio. Eibarko 150 postakutxa.
- Neska euskalduna behar da Eibarko taberna batean lan egiteko. Esperientziarekin. Tel. 943-121146.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Ingeniaritza titulodun neska eskaintzen da klase partikularrek emateko. Tel. 670-251265.
- Magisteritzako ikasleak klase partikularrek ematen ditu. Tel. 638-855268.
- DBHko Zientziak arloko klase partikularrek ematen dira. Tituluduna eta esperientziarekin. Tel. 636-385156.
- Atzerriko Hizkuntzan diplomatuak LH eta DBHko klase partikularrek ematen ditu. Tel. 651-503971.
- Ingeniari kimikoak klase partikularrek ematen ditu: LH, DBH eta Batxilergoa. Tel. 628-665220.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Jatetxea itxi dugula-eta, hainbat artikulu saltzen ditugu, karpa bat tartean (oinarriko makinaria ez). Tel. 677-638184.
- Eskiatzeko arropa salgai. 7-8 urteko neskatilarentzat eta 8-9 urteko gorako neska/mutilarentzat. Tel. 617-171510.

6.2. Eman

- 3 hilabeteko txakurkume emearentzako etxe on bat behar dugu. Txertatua. Arraza txikikoa. Pisu batean bizitzeko aproposa. Doan. Tel. 615-756155. Iñigo.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Border Collie arrazako txakurra desagertu zen, orain dela ia bi hilabete, Azitain inguruan. 3 urte ditu, zuria eta beltza da eta eskumako belarria jausita dauka. 1.000 eurorekin sarituko da. Tel. 629-588627.



...eta kitto!-ren


itzulpen

zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelera,
gaztelertik
euskarara,
eta ingeletik
euskarara.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.



- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.

elkartea@etakitto.com

**Eskela,
urteurren meza
edo eskertzarik
jarri nahi baduzu**

*...eta kitto! aldizkarian
duzu aukera (943 20 67 76)*

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak




T. Etxebarria, 7

Tel. 943 70 23 84

Tel. 943 70 23 78




ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

EUKi

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK